

# EIBARKO HAUR ETA NERABEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA 2024

## EMAITZA NAGUSIAK

Barne koordinaziorako mahaia  
2025eko otsailak 19



# AURKIBIDEA


## Metodologia

## Azterketa

- **DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA**
- **FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK**
- **GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTE HARTZEA**
- **OSASUNA**
- **HEZKUNTZA**
- **ARRISKU EGOERA BEREZETAN DAUDEN HAURRAK**
- **KULTURA, AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA**
- **HIRI-EREMUA**

## Ondorioak eta aurrera begirako erronkak

# METODOLOGIA



## PARTE - HARTZEA

Herriko LH, DBH, batxilergo eta lanbide heziketako 7 ikastetxeen lankidetzari esker, **900 haur eta nerabek** hartu dute parte galdetegian.

Haur, nerabe edo eta familiekin lan egiten duten Eibarko **hiru gizarte-eragile**

# AZTERKETA

Diagnostikoak Eibarko  
haur eta nerabeen  
egoera aztertzen du,  
zortzi alorretan



**DEMOGRAFIA,  
BIZTANLERIA**



**FAMILIA, FAMILIA  
HARREMANAK**



**ESKUBIDEAK,  
PARTE HARTZEA**



**OSASUNA, BIZI  
OHITURAK**



**HEZKUNTZA ETA  
EUSKARA**



**ZAURGARRITASUN  
EGOERAN DAUDEN  
HAUR ETA  
NERABEAK**



**AISIA, DENBORA  
LIBREA**



**HIRI-INGURUNEA**

# 1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA




Azken hamarkadan jaiotzak %24 murriztu dira. 2013an 233 haur jaio ziren bizirik; 2023an 178.



Jaiotza tasaren jaitsierak eta populazioaren zahartzeari lotutako heriotzek, hazkunde begetatibo negatiboa izatea eragin dute. Migrazio-saldoari esker, begetazio-defizita arindu da eta azken hamarkadan Eibarko biztanle kopurua %0,6 soilik jaitsi da.



Biztanle gazteen aniztasuna: atzerrian jaiotako haur eta nerabeak 0-17 urteko biztanleen %13,9 dira.



## 2. FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK

### Maila sozio-ekonomikoa



**13.525 familia etxebizitza** daude Eibarren. Batez beste 77m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria dute eta duela 58 urte eraikiak dira

2021/23



Eskuragarri dagoen batez besteko **familia-errenta 39.956€**-koa da. %7,3 igo da hiru urtean

2022



**Langabezia-tasa %9,4**koa da. Ia bi puntu jaitsi da azken hiru urteetan

2023



Herrian 8.560 langile hartzen dituzten **1.737 establezimendu ekonomiko** daude

2024

© 2024 EIBAR. BAKETIAK. BAKETIAK. BAKETIAK

## 2. FAMILIA ETA FAMILIA HARREMANAK

Nola bizi  
dituzte  
familia-  
harremanak?

- **10 haur eta nerabetik 9 nahikoa edo oso gustura dago familiarekin, 10-12 urtekoen artean are gehiago (%97).**
- **Gogobetetze-maila baxuena 16 eta 18 urte arteko nerabeek dute (%67k uste du etxeko erabakiak hartzerakoan gurasoek beren iritzia kontuan izaten dutela).**
- Haur eta nerabeek familia bizitzan asko, nahikoa, parte hartzen dutela deritzote. Pisu handiagoa izatekotan, **bidaia eta oporrei lotutako erabakietan eragin nahi lukete gehiago (%7), guraso eta familiako kideekin denbora gehiago pasa (%7), etxeko lanetan gehiago lagundu (%5) eta asteburuko planak aukeratu (%4).**

Nerabe zaharrenek ere lehentasun berak aipatzen dituzte, baina gazteagoek baino garrantzia handiagoa ematen diete familia harremanei (hitz egiteko denbora izatea, entzuna izatea, familia-harremanak hobetzea, etab.)


### 3. ESKUBIDEAK ETA PARTE HARTZEA



Errespetatuak  
sentitzen dira?  
Beren  
eskubideak  
ezagutzen  
dituzte?

- **Haur eta nerabeen %62k pertsona helduek errespetuz tratatzen dutela** adierazi du. Gai honetan ere, adinean gora egitean gogobetetze-mailak behera egiten du: 10-12 urtekoen % 75,5ek dio nahikoa edo oso errespetatua sentitzen dela, aldiz, 16 urtetik gorakoen artean % 53,5ek.
- Eibarren *Haurren hiri lagunak* ekimenerako lanketa ikasturte honetan hasi denez, espero zitekeen moduan, haur eta nerabeen **%36k soilik ezagutzen ditu bere eskubideak**.
- Haur eta nerabeen **%38ri iruditzen zaio beren eskubideak nahikoa edo asko azaldu dizkietela**. Haurren %52k, baina 16-18 urtekoen %23k soilik dio azalpen aski jaso duela.

### 3. ESKUBIDEAK ETA PARTE HARTZEA



Adinak gora egin ahala, behera egiten du pertzepzioak: 10-12 urtekoen %37k eta 16-18 urte artekoen %22k sentitzen du Udalak entzuten duela.

#### Herri-bizitzako zein alderditan parte hartu nahi lukete gehiago?

Jai eta kultur programazioan; kirol instalakuntza eta eskaintzan; hirigintzan (merkataritza, espazio publikoa, etab.); hiri-mantenuan (garbiketa, hondakinak, segurtasuna).

| 10-12 urte                                                             | 13-15 urte                                             | 16-18 urte                                             |
|------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|
| Parke eta jolas-guneak; kirol instalakuntzak eta eskaintza; hirigintza | Jai eta kultur programazioa; hiri-mantenua; hirigintza | Jai eta kultur programazioa; hiri-mantenua; hirigintza |

## 4. OSASUNA ETA BIZI-OHITURAK

Haur eta  
nerabeek  
osasunarekiko  
zer pertzepzio  
dute?



Eibarko haur eta nerabeek **beren bizi-kalitatearen** oso balorazio positiboa egiten dute; 10etik **8,26 puntu** ematen dizkiote.



Haur eta nerabeen % **89,4k** badaki norengana jo gaixo dagoenean.



% **25** nahikoa edo oso urduri sentitzen da normalean, eta gehiago eragiten die neskei (%30) mutilei baino (%20).



% **36** nekatua sentitzen da normalean. Neskak gehixeago (%37) mutilak baino (%35), baina batez ere nerabe zaharrenak (16-18 urtekoen %46).

## 4. OSASUNA ETA BIZI-OHITURAK

Haur eta  
nerabeen  
jarduera  
fisikoa



Astean 4 egun baino  
gehiagotan (4,3) egiten  
dute kirola batez beste  
eta oso gustuko dute (8,4)



Mutilen artean, alde handiz, **futbola da kirol ohikoena (%62)**. Ondoren gimnasia joatea (%18,7), eskubaloia (%16,5) eta mendia (%16,2)



Eskola kirolari esker, **LHn jarduera anitzagoak** dituzte.

**13-15** urterekin maiztasuna jaisten hasten da (4,1) eta **16-18** urterekin jotzen du behea (3,9).

Zaharrenek gimnasioa (%41,3) eta futbola (%35,9) dituzte gogokoen.



Nesken artean **dantza da jarduera ohikoena (%40,3)**.

Ondoren mendia (%19,1), futbola (%16,3), eskubaloia (%15,5) eta gimnasioa (%15).

## 4. OSASUNA ETA BIZI-OHITURAK



Kirolen  
hautua eta  
kirola egiteko  
mugak

**%60a gustuko kirole(t)an aritzen da**  
eta ez du beste kirolen batean hasteko ezintasun edo trabarik

Baina...

- Haur eta nerabeen %17ak azaldu du **herrian instalakuntza egokirik edo talderik ez dagoelako**, ezin duela gustatuko litzaiokeen kirola egin. Hala aipatzen da, batez ere, boleibola, baina baita badminton, patinaje, tenis, padel, txirrindularitza eta eskalada ere.
- Ezintasun horren bigarren motiboa (%6) **klima edo geografia berezia behar duen kirola** delako da (eskia, surfa, golfa, etab.).
- Hirugarrena, **denbora falta** (%4).
- %3ak baliabide ekonomiko edo material falta aipatu du.
- %2ak beldurra, konfiantza falta edo gustatuko litzaiokeen kirol horretan “txarrak” direla.

## 4. OSASUNA ETA BIZI-OHITURAK

Zein ohitura  
txarrek jartzen  
dute arriskuan  
beren  
osasuna?



2-17 urteko **nesken %9,4k** eta  
**mutilen %12,8k obesitatea** du.  
Nesken %13k eta mutilen %11k  
**gutxiegi pisatzen dute.**

2017



12 eta 22 urte bitarteko  
pertsonen **%40k azken hilabetean**  
**alkohola** kontsumitu du.

2022



12 eta 22 urte bitarteko  
pertsonen %29k probatu du eta  
**%15 tabako kontsumitzailea**

2022



12 eta 22 urte bitarteko  
pertsonen **%11k kalamua**  
**kontsumitu du azken hilabetean**

2022

EAE-KO DATUAK



## 5. HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Zer ezaugarri  
dute Eibarko  
ikasleek?

### Ikasleak

Unibertsitatekoak ez  
diren Eibarko  
ikastetxeetan  
**5.169 ikasle zeuden  
matrikulatuak  
2022-2023  
ikasturtean**

+%6 hamar urtean

### Euskara

**Ikasleen %80,6  
D ereduan dabil,**  
%16 A ereduan eta  
%3 B ereduan

+%26 hamar urtean

### Aniztasuna

**0-17 urteko  
biztanleen %13,9  
atzerrian jaiotakoa  
da**

### Aniztasuna

Galdetegian parte  
hartu duten ikasleen  
**%17,1ak euskara eta  
gaztelera ez beste  
hizkuntza bat  
erabiltzen du  
normalean**

## 5. HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Zein da  
eskolarekiko  
gogobetetze-  
maila?



Haur eta nerabeen **%60,2**  
**gustura daude beren**  
**ikastetxean**

[adinarekin ↘](#)



**%82,6k lagunak ditu**  
**ikastetxean**

[adinarekin ↘](#)



**%60,8k** dio irakasleren bati arazoren bat kontatu nahi dionean,  
nahikoa edo asko entzuten dietela

[adinarekin ↘](#)



Gelan zer egin edo irteerak  
erabakitzeko **irakasleek**  
**beren iritzia galdetzen**  
**dietela** diote **%33,6k**



**Ikastetxeko bizitzan**  
parte hartu eta erabakiak  
hartzeko duten  
aukerarekin gustura  
daude **%50,4**

## 5. HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Zertan parte hartu nahi dute gehiago?

Zenbat denbora pasatzen dute etxerako lanekin?

**Ikasgelaren antolaketa eta kudeaketetan** (%30), **eskola-egutegi eta ordutegien** definizioan (%28), eta **azterketen inguruko erabakietan** (noiz, zenbat, etab.) (%23) pisu handiagoa izan nahi dute haur eta nerabeek.

DBH eta batxilergo amaierako **ikas-bidaie**n antolaketan erabaki ahalmen handiagoa izateko borondatea ere ageri da zaharrenean artean.



Ikasleen bi heren baino gehixeagok (%68,9) **egunean 30 minutu eta 2 ordu artean** pasatzen du etxerako lanetan. Ikasketetan gora egin ahala, dedikazio horrek gora egiten du.

10-12 urtekoen %25,4k 30 minutu baino gutxiago eskaintzen die. 16-18 urtekoen %18,9ak 2 ordu baino gehiago eskaintzen die.

Nesken %16,6k eta mutilen %6k egunean 2 ordu baino gehiago eskaintzen die. Nesken %12,9 eta mutilen %27,2k egunean 30 minututik behera pasatzen ditu etxerako lanak egiten.

## 5. HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Euskararekiko  
motibazioa  
eta erabilera

**Haur eta nerabeen %16,6k, orokorrean, nahiago du euskaraz egin**  
**Haur eta nerabeen %12,1 aritzen da normalean euskaraz lagunekin**

- **Euskararekiko lehentasuna eta lagun arteko erabilera ahuldu egiten dira adinean gora egin ahala.** 10-12 urtekoen %18,3k dio lagunartean euskaraz nahikoa edo asko aritzen dela, baina 13 urtetik aurrera %8,2ra jaisten da proportzioa.
- Hala ere, **%59ari garrantzitsua iruditzen zaio lagun artean euskaraz aritzea.** Horien motibazio nagusia hizkuntzaren biziraupena da (%49), eta ondoren euskal kulturarekiko atxikimendua (%13), norbere euskara maila hobetzea (%12) eta Eibarko gazteen artean hizkuntza ohiturak aldatu beharra (%11).
- Haur eta nerabeen **%20ari ez zaio garrantzitsua iruditzen lagunekin euskaraz egitea.** Horien erdiek ez dute arrazoirik azaltzen, baina motibazioa zehazten dutenen artean nagusiak hauek dira: erosoago ari dela gaztelera edo ez duela euskara menderatzen (%18), eskolan derrigorrezkoa dela baina hortik kanpo askatasunez hautatzeko eskubidea dutela (%13), euskarak hedadura eta balio mugatua duela (%9).
- **Haur eta nerabeen %17,1ak gaztelera eta euskara ez beste hizkuntza bat lehenesten du.** 10-12 urtekoen %25,6ak, 13-15 urtekoen %15,3k eta 16-18 urtekoen %6,8k.

## 6. ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEAK



Haur eta  
nerabeen  
babesa

Haur eta nerabeen **babesgabetasun egoera posibleengatik 108 jakinarazpen** jaso dira gizarte zerbitzuetan. Erdiak ikastetxeek eginak izan dira.

>> Egoera eta arriskua baloratuta, 42 familia (64 haur eta nerabe) artatu dira familia esku-hartzeen bidez

Haur eta nerabeen eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntza 180 familiari eman zaie. Horri esker 56 haurrek ludoteka edo Afariketari bezalako zerbitzu hezitzaileetan parte hartu dute.

2023

## 6. ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEAK



Indarkeria eta  
diskriminazio  
egoerei  
buruzko  
pertzepzioa



Haur eta nerabeen **%19,7k** uste du **indarkeria pairatzen duen adin txikikoak** daudela Eibarren



**%29,2k** uste du Eibarren badirela **etorkin izateagatik diskriminatutako pertsonak**



**%30,9k** uste du **lesbiana edo gay izateagatik diskriminatutako** pertsonak badirela Eibarren

**Neskek mutilek baino sentsibiltate handiagoa** adierazi dute hiru alor horietan:

- Haur eta nerabeen aurkako indarkeria nahikoa edo asko dagoela **%20,8 vs %18,6**
- Etorkin izateagatik nahikoa edo asko diskriminatzen direla **%32,7 vs %25,3**
- LGTBI komunitatea nahikoa edo asko diskriminatzen dela **%34,6 vs %27,0**

## 6. ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEAK



Berdintasun-  
nerako  
erronkak



Nesken %62,9k **genero-desberdintasun, matxismo eta indarkeria matxistari buruz kezka** nahikoa edo handia du; aldiz, mutilen %37,4k soilik.



Mutilek (%56,5) **gizon eta emakumeen artean berdintasun** handiagoa dagoela uste dute (nesken %36,1).



Mutilen %79,9k uste du egun, Eibarren, **neskatoek eta mutikoek eskubide berberak dituztela eta** %86,7k **espazio berez goza dezaketela** (nesken %70,8k eta %74,4k).



%39,1entzat **nahikoa edo oso kezagarria da haur-pobrezia**, batez ere 10-12 urte bitartekoentzat (%55,2).



**%41,4k** herriko haur eta nerabe guztiak **etxebizitza egokietan bizi direla uste du.**  
**%57,1ek** herriko haur eta nerabeek **ahalik eta hezkuntza onena jasotzen dutela.**

## 7. AISIA ETA DENBORA LIBREA

### AIRE ZABALEAN JOLASTEA

Nola  
erabiltzen  
dute denbora  
librea haur  
eta nerabeek?

Haur eta nerabeen  
%82,7k uste du  
nahikoa edo oso  
**garrantzitsua dela**  
kalean jolastu edo  
kirola egitea.

13-15 urtekoen  
%52,4k eta 16-18  
urtekoen %46,6k  
soilik **erabili ohi**  
**ditu nahikoa edo**  
**asko** hiriko plaza,  
parke, aire librean  
jolas edo kirola  
egiteko eremuak.

10-12 urtekoen %76,2k

%34,1ek soilik uste  
du **espazio publiko**  
**horiek nahikoa**  
**edo ongi zainduak**  
**daudela.**

10-12 urtekoen %41,0k

Aire librean jolas  
egiteko eremuek  
10etik **6,7 puntuko**  
batez bestekoa  
jaso dute.

10-12 urtekok 7,3 p.

### Lagunekin ondo pasatzeko Eibarren zer falta den galdetuta...

- %24k lagunekin kirolean (eta ez soilik futbolean) aritzeko kantxa edo espazioak aipatu ditu
- %19k kontsumo aukerak zabaltzea nahi luke (denda handiagoak, gehiago, etab.)
- %13k parke eta jolas-gune gehiago eskatu ditu (adin guztietara egokitutakoak)
- 16-18 urtekoek kultur eta jai programazioa hobetzeari eman diote lehentasuna

## 7. AISIA ETA DENBORA LIBREA

Eskaintza  
publikoaren  
balorazioa



Udal ludoteka eta  
gaztelekuak 6,8 puntu lortu  
dituzte

10-12 urte 7,7; 13-15 urte 6,4; 16-18 urte 6,2



Coliseo antzoki eta zinemak  
7,0 puntu lortu ditu



Kiroldegi eta igerilekuek 7,5  
puntu lortu dituzte



Liburutegiak 7,3 puntu lortu  
ditu



Herriko parke eta plazei 6,9  
puntu eman dizkiete 10en gain.

**Haur eta nerabeen %31,6k uste du Eibarren denbora libreko eskaintza nahikoa edo handia dagoela beraientzat.**

10-12 urtekoen %43,7k, baina 13-15 urtekoen %22,9k eta 16-18koen %26,0k.

**Haur eta nerabeen %34,8k du gogoko eskaintza hori.** 10-12koen %48,0k baina 13-15ekoen %25,5ek eta 16-18koen %28,2k.

## 8. HIRI-INGURUNEA



Nolako da  
hiri-  
ingurunea?



Haur eta nerabeen **%41,3**  
**seguru eta lasai ibiltzen da**  
Eibarko kaleetan

[adinarekin ↘](#)



**%21,1**ek soilik uste du  
**kaleak nahiko edo oso**  
**zainduak eta garbi** daudela



Haur eta nerabeen **%41**ak  
uste du **gauez kaleak**  
**nahikoa argiztatua** daudela



Haur eta nerabeen **%20,6**k  
uste du Eibar **nahiko edo**  
**oso hiri garbia** dela



Haur eta nerabeen  
**%44,8**rentzat **hiri atsegina**  
da



Haur eta nerabeen  
**%42,8**rentzat **hiri**  
**dibertigarria** da

10-12 urteko **%85,2**rentzat; 13-15koen  
**%33,9**rentzat; 16-18koen **%40,6**entzat

10-12 urteko **%62,8**rentzat; 13-15koen  
**%27,2**rentzat; 16-18koen **%35,6**entzat

## 8. HIRI-INGURUNEA



### ZARATA

Haur eta nerabeen %34k Eibar nahiko edo oso **hiri zaratatsua** dela uste du

### TRAFIKOA

Haur eta nerabeen %54,6k uste du **autoek zebra-bideak errespetatu** eta pasatzen uzten dietela

### GARRAIO PUBLIKOA eta BIZIKLETA

Haur eta nerabeen %47,4k **erabili ohi du autobus edo trena** egunerokoan. Batez ere 13 urtetik gora.

**Bizikleta** %8,8k soilik erabiltzen du (10-12 urtekoek)

Haur eta nerabeen **%24k garraio publikoa hobetzea** eskatzen du (ordutegia, maiztasuna, autobusen tamaina, auzoetara heltzea). **%18k bidegorri gehiago** nahi du. **%17k hiri-zerbitzuak hobetzea** (argiteria, segurtasuna, kaleen garbiketa, mantenua, etab.). **%16k oinezko desplazamenduetarako baldintza** hobeak (espaloizabalagoak, zebra-bide eta eskailera mekaniko gehiago).

## 8. HIRI-INGURUNEA



Beren auzo  
eta hiriarekiko  
gogobetetze-  
maila



Ahal balu ere, **haur eta nerabeen %80,2 EZ litzateke auzoz aldatuko.**

Beren auzoarekiko atxikimendu handiena dutenak 10-12 urtekoak dira (%84,4)



Ahal balu, **haur eta nerabeen %31,7 udalerriz aldatuko litzateke.**

10-12 urtekoen %20,5, 13-15 urtekoen %37,3, 16-18 urtekoan %40,3.

## 8. HIRI-INGURUNEA



Eibarren  
bizitzeak  
dituen “alde  
on” eta “alde  
txarrak”



Herri handi edo hiri txiki batean bizitzea da gehien estimatzen dutena (%21): zerbitzu ugari ditu, garraioa, erraz iristen da oinez toki guztietara, etab.



Segurtasun eza eta hiri-zerbitzuen eskasia (argiteria, garbiketa, mantenua) dira gutxien gustatzen zaizkienak (%31)





Eibarko jendea eta kaleko giroa da %19ari gehien gustatzen zaiona



Bigarren faktore gisa (%14) bazterkeria eta bizikidetza arazoak aipatzen dituzte (zarata, gaueko giroa, petardoak, okupak, etab.)

# HIRIKO HAUR ETA NERABE GUZTIEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO 16 ERRONKA





## FAMILIA ETA FAMILIA- HARREMANAK

- 1. Familia eta lana bateragarri egiten laguntzea, familiek denbora gehiago izan dezaten elkarrekin.
- 2. Hazkuntzan eta familia-erabakiak hartzean genero-erantzunkidetasuna sustatzea.



## GIZA-ESKUBIDEAK ETA PARTE HARTZEA

- 3. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren ezagutza sustatzea, kanpainen eta hezkuntza eragileen bidez.
- 4. Haur eta nerabeek udal-erabakietan parte hartzeko espazioak indartzea.



## OSASUNA

- 5. Estresa eta osasun mentaleko arazoak prebenitzea ongizate-estrategien eta ohitura osasungarrien sustapenaren bidez, nerabeentzako arreta psikologikoa indartzea eta arazo emozionalen detekzio goiztiarra hobetzea.
- 6. Txikitatik ohitura osasungarriak sustatzea eta, bereziki, nerabezaroan kirola egitea, adin aurreratuagoetan kirola egiten jarraitzeko jarduera erakargarriak eskainiz.



## HEZKUNTZA ETA EUSKARA

- 7. Ikasleek eskola-bizitzan duten parte-hartzea hobetzea eta kolektiboa erabakiak hartzen inplikatzeara.
- 8. Etxerako lanen zama berronkatu eta ikasteko metodo dinamikoagoak sustatzea, desberdintasunak saihesteko.
- 9. Espazio informaletan eta haur eta nerabeen aisialdian euskararen erabilera sustatzea, eta motibazio- eta jolas-estrategiak sustatzea, nerabeen eguneroko erabilera areagotzeko.



## ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEAK

- 10. Prebentzioa, detekzio goiztiarra eta haur eta nerabeekin esku-hartzea indartzen jarraitzea, babesgabetasun- eta gizarte-bazterketako arrisku kasuetan.
- 11. Haur eta nerabeen berdintasun eta aniztasunarekiko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea, matxismoaren aurkako borrokan, genero-berdintasunaren sustapenean eta jatorri, sexu eta genero aniztasunarekiko errespetuan arreta berezia jarritz.



## AISIA ETA DENBORA LIBREA

- 12. Haur eta nerabeak elkartzeko guneak zabaltzea urte osoan.
- 13. Parkeen eta plazen mantentzea eta egokitzapena hobetzea, nerabeentzako gune erakargarriak eta egokituak gehituz.
- 14. Nerabeentzako aisialdiko eta denbora libreko aukerak handitzea, kultura-, kirol- eta jolas-eskaintza dibertsifikatuz eta jarduera erakargarriak diseinatuz.



## HIRI-INGURUNEA

- 15. Espazio publikoak eta aisialdikoak (plazak, parkeak, berdeguneak...) haur eta nerabeen beharretara egokitzea, ingurune inklusiboak eta seguruak sustatuz.
- 16. Kaleetako garbitasuna indartu eta espazio publikoen mantenua hobetzea, kutsadura akustikoa murrizteko eta hiri-espazioan bizikidetza hobetzeko neurriak barne.
- 17. Segurtasun-pertzepzioa hobetzea, bereziki nesken eta nerabeen artean.
- 18. Mugikortasun jasangarrirako baldintzak zabaltzea, bidegorri gehiago sortu eta oinezkoentzako bideak hobetuz.